

2017ko
ekaina

USURBILGO KULTUR AGENDA

KULTUR AGENDA 2017ko ekaina

	Ostirala 17:00 Santueneako frontoian	HIRU IPUIN	2
	Astelehena 17:00 Udarregi ikastolan	IKASTOLAKO BERTSO JAIALDIA (LH5 ETA LH6)	5
	Asteartea 19:00 Zumeta Arte Estudioan	"EUSKAL SAGARDOA" JATORRIZKO IZENDAPEN BERRIKO SAGARDOAREN AURKEZPENA	6
	Asteazkena 18:30 Sutegin	KANTAGINTZA SAIOA (HH5 ETA LH5)	7
	Osteguna 17:00 Sutegin	UDAJOLASEKO BILERA	8
	Osteguna 18:30 Potxoenean	HEZKUNTZA LEGE BERRIARI BURUZKO HITZALDIA	8
	Ostirala 17:00 Potxoenea atzeko anfiteatroan	IRUDIPUINAK IKUSKIZUNA	9
	Larunbata Egunean zehar	UDARREGI IKASTOLAREN EGUNA	10
	Larunbata 18:00 Sutegin	DANTZA EMANALDIA	10
	Igandea 7:00 Oiardo Kiroldegian	BIDASOAKO KONTRABANDISTAK 6: ERRATZU-ETXALAR	11
	Astelehena 18:30 Salbatore Elizan	ORGANO KONTZERTUA	12
	Ostirala 12:30 Sutegin	IKASLEEK PRESTATUTAKO ANTZERKI MUSIKATUA	16
	Ostirala 20:30 Sutegin	I. ANTZERKI BAKARRIZKETA LABURREN GAUBELA	16
	Larunbata 11:00 Zumarte eraikinaren atzealdean	ZUMARTEKO ERAIKINAREN AGURRA EGUNA	17
	Asteartea 17:30 Frontoian	PATATA TROPIKALA: AZKEN EGUZKILOREA	20
	Larunbata 17:00 Mikel Laboa plazan	RAMON UNANUERI AITORTZA HERRITARRA	24
	Kalezarren	SAN JUAN JAIK	23-25
	Osteguna	GAZTELEKUA: PAINTBALL-ERA IRTEERA (DBH 3)	29
	Astelehena-Ostirala Aginagan	UDAKO TXOKOAK	EKAINAK 26-30 UZTAILAK 3-28

LEHIAKETAK

SANTIXABELETAKO XLI. BERTSOPAPER LEHIAKETA (Helduentzat)	Lanak aurkezteko epea: EKAINAK	19
SANTIXABELETAKO BERTSOPAPER LEHIAKETA (gaztetxoentzat)	Lanak aurkezteko epea: EKAINAK	19

IKASTAROAK

Larunbata 9:00 Potxoenean	SAGASTIEN UDAKO KIMAKETA, GAITZAK ETA IZURRITEAK	4
Uztailak 13 eta 14 Artzabalen	EUSKARA, GENEROA, JATORRIA ETA KLASEA GURUTZATZEN DIREN LEKUA	Izen emateko epea: UZTAILAK

UDAL LIBURUTEGIA

Astelehena ostiralera, 10:00-13:00 eta 16:00-19:30
Larunbatetan, 10:00-13:00

UDAN: Ekainaren 23tik irailaren 3a arte:
Astelehena ostiralera, 9:30-14:00

Sutegi Eraikina · Irazu kalea, 14 - 20170 Usurbil
Tel.: 943 360 692 · <http://liburutegiak.blog.euskadi.net/usurbil/>

KZ-GUNEKO IKASTAROAK

IKASTARO ETA MINTEGIAK	GOOGLE APPS
OINARRIZKO INTERNET	Youtube (4 ordu) 01-02 · 18:00-20:00
Erosketa segurua interneten (4 ordu) 1-2 · 16:00-18:00	Google aplikazioak (10 ordu teoria + 6 ordu praktika) 19-28 16:00-18:00
Oinarrizko interneta (14 ordu teoria + 6 ordu praktika) 5-16 · 16:00-18:00	URRUNEKO FORMAZIOA (GAZTELANIAZ)
SOFTWARE LIBREA	· Wordpress, zure webgunea sortu
Libreoffice writer (8 ordu) 26-29 18:00-20:00	· Erosketak eta salmenta segurua internet bitartez · Ofimatika aurreratua
	· Android sistema eragilea

Ekaina Kzguna: arratsalde 16:00-20:00
Kale Nagusia 37. · 20170 Usurbil · Tel.: 943 02 36 84
tutor.usurbil@kzguna.net · www.kzguna.eus

ERAKUSKETAK

Sutegin	KILOMETROAK BIDEA ERAKUSKETA	Maiatza 29-31 Ekaina 1-4
Sutegin	ESKULAN ERAKUSKETA	5-11
Sutegin	ARTZABALGO PINTURA IKASTAROKO IKASLEEN LANAK	22-25
Sutegin	ZIRRIBORRO TAILERREKO IKASLEEN PINTURAK ETA ESKULANAK	26-Uztailak 2



Uztailean eta abuztuan ez da kultur agendarik argitaratuko.

Irailako kultur agendarako dituzuen proposamenak uztailaren 26a baino lehen kultura@usurbil.eus helbidera bidali.



Usurbilgo Udala
Soziokultura Saila
Tel. 943 371 999
kultura@usurbil.eus
www.usurbil.eus

Usurbil Kultura
Herritarren tresna
Usurbilgo Kultura zabaltzeko
kultura-usurbil.eus

EUSKARA, GENEROA, JATORRIA ETA KLASEA GURUTZATZEN DIREN LEKUA: UDAKO EUSKAL UNIBERTSITATEAREN BARRUAN JAKIN JARDUNALDIAK USURBILAN

Egunak: uztailak 13 eta 14 · **Tokia:** Usurbilgo Artzabal Egoitza
Orduetgia: ostegunean 09:00-17:00 eta ostiralera: 09:00-14:00 (12 ordu)
Prezioa: Doan · **Matrikulazioa:** maiatzaren 22tik uztailaren 10era.
Informazio gehiago: www.ueu.eus

Gure eguneroko bizitza eta besteekiko bizikidetzak hizkuntza, genero, klase sozial eta jatorriaren arteko harremanetan josten da. Batzuetan korapilatu eta bestetan askatu. Harreman horien nolakotasunak esaten digu zerbait geure buruaz, geure taldeatasunetaz, eta azken finean, herria egiteko geure moduez, ezinez eta indargunez. Galdera asko ditugu begien aurrean ikusi nahi izatera. Eseri, eta galdera horiek, eta gehiagok marrazten diguten bidegurutze horretan zer gertatzen den ikusi nahi dugu, jokoan ze botere harreman dauden aztertu eta aniztasunetik elkarrizketa abiatu, horretarako elkarguneko feminismoaren begirada baliatuz. Horren guztiaren inguruko hausnarketari denbora eta lekua eman nahi diogu lehen **Jakin Jardunaldi** hauetan eta horretarako hamabi aditu eta aritu bilduko ditugu, diskurtsoa eraikitzen eta praktika egikaritzen dabilzanak denak. **Lehen egunean diskurtsoari helduko diogu gehien bat, eta, bigarrenean, bizi-ibilbideen errepasoa** baliatuko dugu bidegurutzea zeharkatzeko. Horretarako euskararen ondoan, kitxua, wolof eta galiziera hizkuntzek ere izango dute lekua.



LEHIAKETAK

SANTIXABELETAKO XLI. BERTSOPAPER LEHIAKETA (HELDUENTZAT)

Lehiaketa honetan 16 urtetik gorako usurbildarrek parte har dezakete. Lanak ekainaren 19rako aurkeztu behar dira Usurbilgo Udaleko erregistroan. Gaia librea izango da. Lanek gutxienez 8 bertso eta gehienez 10 bertso izan behar dituzte. 1. saria: 200 euro eta oroigarria. 2. saria: 150 euro. Lanak egilea nor den adierazi dezakeen daturik gabe aurkeztuko dira, izengoitiz. Lanarekin batera kartazal itxi batean parte hartzailearen datu pertsonalak jasoko dira.

SANTIXABELETAKO BERTSOPAPER LEHIAKETA (LH5 ETA LH6KO GAZTETXOENTZAT)

Lehiaketa honetan LH5 eta LH6ko usurbildarrek edo Usurbilen ikasten duten gaztetxoek parte har dezakete. Lanak ekainaren 19rako aurkeztu behar dira Usurbilgo Udaleko erregistroan. Gaiak hauek izango dira: Santixabelak/Udako Oporrak/Usurbilgo txokoak. Lanek 2 bertso izan behar dituzte. Maila bakoitzean bi sari egongo dira: 1. saria: 50 euro Hurbilagoko dendetan gastatzeko eta oroigarria. 2. saria: 40 euro Hurbilagoko dendetan gastatzeko eta oroigarria. Lanak egilea nor den adierazi dezakeen daturik gabe aurkeztuko dira, izengoitiz. Lanarekin batera kartazal itxi batean parte hartzailearen datu pertsonalak jasoko dira.

ERAKUSKETAK

KILOMETROAK BIDEA ERAKUSKETA

Egunak: Maiatzak 29-31 Ekainak 1-4 · **Lekua:** Sutegiko erakusketaren aretoa
Antolatzailea: Udarregi Ikastola
Kilometroak jaiak 40 urteko bidea osatuko du laster. Tenore hau baliatuz ikastolan Elkarteak prestatutako erakusketak ikusgai egongo da.

ESKULAN ERAKUSKETA

Egunak: 5-11 · **Lekua:** Sutegiko erakusleihoan · **Antolatzailea:** Hitz-aho guraso elkarte

ARTZABALGO PINTURA IKASTAROKO IKASLEEN LANAK

Egunak: ekainak 22-25 · **Orduetgia:** Ostiralean 17:00-20:00
Larunbata: 10:00-13:00 eta 17:00-20:00
Igandea: 10:00-13:00

Lekua: Sutegiko erakusketaren aretoa
Ostiralean inaugurazio ekitaldi batekin emango zaio irekiera erakusketari. Bertan, Artzabal Zahar Egoitzako pintura ikasleen lanak eta Eguneko Zentroko eskulanak jarriko dira ikusgai.

ZIRRIBORRO TAILERREKO IKASLEEN PINTURAK ETA ESKULANAK

Egunak: ekainak 26-uztailak 2 · **Orduetgia:** 11:00-13:00 eta 18:00-20:00
Lekua: Sutegiko erakusketaren aretoa

EKINTZAK



2 Ostirala 17:00 Santueneako frontoian

HIRU IPUIN
Norentzat: 4 urtetik gorakoentzat. **Antolatzailea:** Santuenea kultur elkarte. Muxugorrik, Tomax liburutegira joateko konbentzituko du, han ipuinekin, antzerkiak sortuko dituztelako. Beraz, "Txanogorritxo", "Hiru txerritxo" eta "Hamelongo txirularia", bere erara antzetzuko dute. Barre egin, ondo pasa, kanta, dantza eta magia guztiak dibertitzeko. Antzezlan familiarra: gurasoek ere primeran pasatzen dute.

6 Asteartea 19:00 Zumeta Arte Estudioan

"EUSKAL SAGARDOA" JATORRIZKO IZENDAPEN BERRIKO SAGARDOAREN AURKEZPENA
Aurkezpenak. · Sagardo dastaketa eta mokadutxo. Unai Agirre, Izendapeneko teknikariaren eskutik. · Jose Luis Zumetaren lanen erakusketa ikusgai izango da. Oharra: Kotxez ezingo da bertaratu. Autobus zerbitzua izango da Kale Nagusiko autobus geltokitik.

8 Osteguna 17:00 Sutegiko auditoriumean

UDAJOLASEKO BILERA
Antolatzaileak: Noaua! eta usurbilgo Udala
Udajolasen izena eman duten haurren gurasoekin bilera izango da, aurtengo udalekuei buruzko informazioa emateko.

IKASTOLAREN EGUNAREN INGURUKO EKINTZAK



5 Astelehena 17:00 Udarrégi ikastolako erdiko gelan

IKASTOLAKO BERTSO JAIALDIA (LH5 ETA LH6)
Ikasturtero, Ahozkotasuna eta Bertsolaritza Programan barruan Bertso jaialdia eskaintzen dute LHko 5. eta 6. mailako ikasleek. Bikaina izaten da! Zatoz!

7 Asteazkena 18:30 Sutegiko auditoriumean

KANTAGINTZA SAIOA HH 5. ETA LH 5. MAILAKO IKASLEEK

8 Osteguna 18:30 Potxoenean

HEZKUNTZA LEGE BERRIARI BURUZKO HITZALDIA
Hizlariak: EHko lehendakaria eta arduradunak. Hezkuntza-lege berriari buruzko hitzaldia. Hitzaldian hezkuntza-legearen garrantziaz eta EHIK duen iritziaz hitz egin eta informatuko da.

9 Ostirala 17:00 Irazu kaleko anfiteatroan (Eliza ondoko plazatxoan)

IRUDIPUINAK IKUSKIZUNA
Emanaldi hau Mattin marrazkilaria eta ilustratzaileak eta Ixabel Agirresarobe ipuin kontalariak osatzen dute. Bertan, zuzeneko marrazkiak ipuinekin uztartzen dituzte. Ondoren, txokolatada Askatasuna plazan. **Oharra:** Eurria bada, saioa Askatasuna plazan izango da.



10 Larunbata Udarrégi Ikastolan

UDARRÉGI IKASTOLAREN EGUNA
09:30: Esnadeia.
09:00-12:00: LH eta DBHko ikasleen jokoak.
10:30-13:00: LH eta DBHko ikasleen eskulan eta teknologia lanen erakusketa Ikastola gorrian. (Gernika Ibilbidea 11)
12:00 HHko Haur Jaialdia Oiardo kiroldegian (Ateak 11:40ean irekiko dira, sarrera ate nagusitik izango da)
14:00 Herri bazkaria eta bazkal ondorengo girotea gurasoen eskutik. Pilotalekuan.
Ekainak 3-6 Haur Eskolako haurrek egindako lanen erakusketa Oiardo Kiroldegiko harrera-tokian.

16 Ostirala 12:30 Sutegiko auditoriumean

IKASLEEK BERAIEK PRESTATUTAKO ANTZERKI MUSIKATUA
Antolatzaileak: Udarrégi Ikastola eta Hitz Aho guraso elkarte

GAZTELEKUA ZABALIK:



EKAINAK 3 - UZTAILAK 21
Uztailak 3 eta Uztailak 6:
Gaztelekuko pareta bat margotu (DENAK)
Uztailak 10 eta Uztailak 13: Ur jolasak (DENAK)
Uztailak 17 eta Uztailak 20: Pizza tailerra (orea egiten ikasi) (DENAK)

IRTEERAK:
Ekainak 29: Paintball-era irteera (DBH3)
Uztailak 7: Gamarrara irteera (DBH4)
Uztailak 14: Kayak-en ibiltzea (DBH2)
Uztailak 21: Donostiako Irlara irteera (DBH1)
Antolatzailea: Gaztelekua
Ekintza bereziei buruzko Informazio gehiago Gaztelekuan.
gaztelekua@usurbil.eus tel. 943 371050

10 Larunbata 18:00 Sutegiko auditoriumean

DANTZA EMANALDIA
Sarrera: Sarrera-sinbolikoa · **Antolatzailea:** Ouarda El Kattouni Mallai
"Dantza Kultura da" saioa.

11 Igandea 07:30 Oiardo Kiroldegitik

MENDI IRTEERA: BIDASOAKO KONTRABANDISTAK 6: ERRATZU-ETXALAR
Antolatzailea: Andatza mendizaleen kirol elkarte
Garraioa: Autobusez **Ibilbidea:** 23 Km
Izena emateko epea: Ekainak 7 baino lehen. Izena ematerakoan ordaindu beharrekoa: 10 €
Informazio gehiago: www.andatza.com
Plaza mugatuak. Otordua ibilbidea amaitutakoan egingo dugu. Janaria norberak eraman behar du. Edaria Andatza Mendizaleen Kirol Taldeak eramango du.



16 Ostirala 20:30 Sutegiko auditoriumean

I. ANTZERKI BAKARRIZKETA LABURREN GAUBELA
Sarrera: 6 euro · **Iraupena:** ordubete eta hoge minutu
5-20 minutuetako piezak euskaraz batzuk eta gaztelaniaz besteak.
MIREN SEGOVIA "Entzuleentzat nire lehen bakarrizketa"
ESTHER URIA "Cada día es sólo una vez al día"
ENRIKE AMILIBIA "Marioren bakarrizketa"
IÑIGO DIEREZ "Nire ingurua"
TELMO IRURETA "Toquecito minus"
AMAIA IRAZABAL ".inor.ez.dator."



20 Asteartea 17:30 Frontoian

PATATA TROPICALA: AZKEN EGUZKILOREA
Antolatzailea: Noaua! Kultur Elkarte.
Haur eta gaztetxoentzako emanaldia.
"Ongi Etorri" baserriko Kattalin herrira jaitsi eta bere lagun guztiak desagertu direla ohartuko da. Herrian ez du gertatu denaz inongo erantzunik topatuko. Beraz adoz bete eta Mari Jainkosari galdetzeraz abiatuko da, nahiz eta basoan betirako harrapatuta geratu daitekeela jakin. Bertan txotxongiloak, maskarak, antzerkia, umorea eta irudimena dantzan ikusiko ditugu. Euskal Kulturaren adierazgarria den euskal mitologia landuz.



23-25 San Juan jaiak Kalezarren

Antolatzailea: Kalezarko Jai Batzordea
Ekainak 23
Ostirala, San Juan bezpera
15:00 San Juan eskearen irteera.
22:00 San Juan sua.
Ondoren: Eskearen jarraipena.
Amaitean: **Eromeria** taldearekin dantzaldia.
Ekainak 24
Larunbata, San Juan Eguna
09:00 Oilasko biltzaile txikien irteera.
11:30 Meza Nagusia.
Ondoren: toka.
13:00 Gorritiren Showa.
14:00 Oilasko biltzaileen bazkaria.
16:00 Musa. (Izen ematea 15:30ean itxiko da)
16:30 Buruhandiak.
17:30 Herriko dantzariak.
18:30 Soka Dantza.
Ondoren, sardina eta sagardo dastaketa
Saizar Sagardotegiaren eskutik.
23:30 **Zesuma** taldearen dantzaldia.
Ondoren **DJ SEYMAR**.
Ekainak 25
Igandea, Umeen Eguna
10:00 XV. Ume krosa.
11:30 Jolasak.
16:30 Tailerrak.
18:00 Txokolatada.
Ondoren: Buruhandiak.
19:00 DJ GUDerekin dantzaldia.
Oharra: Jai Batzordea ez da jaietan gerta daitezkeen istripu edo ezbeharrez arduratuko.



Zumarte Musika Eskolaren ekintzak

12 Astelehena 18:30 Salbatore Elizan

ORGANO KONTZERTUA
Joan Luis Atxega organistak eta Zumarteko pianoko ikasleek organo kontzertua eskainiko dute. Datoren belaunaldietako ikasleek organoa ezagutu eta jotzeko ohitura hartzeko bultzatu nahian sortu eta landutako kontzertua izango da.



17 Larunbata 10:00 Txistulari eta Trikitilari-Panderojelek kalejiran

"ZUMARTE ERAIKINAREN AGURRA" EGUNA
10:00 Txistulari eta Trikitilari-Panderojelek kalejiran.
Zumarteko eraikinaren atzealdean:
Goizeko 11:00-13:30 bitarte kontzertuak. · Eguerdian, bazkari girotua. · Arratsaldeko 16:00-20:00 bitarte kontzertuak. · Egun guztian zehar Zumarteko eraikinaren barruan erakustaldi eta tailer bereziak. · 20:00 kalejira txarangarekin Usurbilgo kaleetan zehar. · 21:30 afari herrikoa.
Antolatzailea: Zumarte Musika Eskola



24 Larunbata 17:00-20:00 Mikel Laboa plazan eta pilotalekuan

RAMON UNANUE MATXAINI AITORTZA HERRITARRA (1953-2013)
Ramon Unanue Matxain Usurbilen jaio zen, zehazki Kalezar auzoko Iparralde etxean. Kirolari aparta izan zen 70-80ko hamarkadetan, bereziki, pisu jaurtiketan. Ez zen, ordea, kirolaria soilik, bizitza bizitzeko zeukan ikuskera zabal bezain aitzindaria kirolaren prisma izipiztintzen zigan ingurukooi. Kirola helburu eta tresna zituen aldi berean. Tresna edo bidea pertsonarengana iristeko, pertsona osoak egiteko. Kirola bizi egiten zuen, maitasunez eta pasioz bizi ere. Baina, bere helburua herritarra eta herria ziren. Ekimen honen bultzatzaileok garrantzitsua deritzogu benetako Ramon Unanue nor izan zen argitara ematea eta zor diogun aitortza egitea. Horregatik, bere argazkien erakusketa jarri nahi da. Hemendik eskatzen diote herritarrei Ramon Unanuen argazkirik duenari bidal dezala ahalik eta azkarren **xmerre@gmail.com** emailera. Arratsaldean kirol jarduera ugari izango dira frontoi inguruan, eta Ramonen senideak ere gure artean izango ditugu. Talde sustatzaileak: Dozenaka herritar eta Talde Sustatzailea, Arkaitz Errazkin, Xabier Mikel Errekondo, Kerman Errekondo, Agustin Dominguez, Joxe Mari Torregarai, Zalao Arnaiz, Kontxi Irureta, Ane Agirre, Pello Errasti, Joxe Manzano, Enrike Huizi, Nagore Unanue, Beñat Lizaso, Amador Granados, Andoni Errazkin, Antonio Montoya, Iñaki Biurrarena, USURBIL-K.E. , BURUNTZAZPI, PAGAZPE, USURBIL-F.T. elkarteak.
Ramon Unanue Matxaini aitortza herritarra egitera hurbiltzeko deia egiten diete usurbildar guztiei.



26-30 uztailak 3-28

UDAKO TXOKOAK AGINAGAN
Antolatzailea: Aginagako Eskola Txikiko San Praixku guraso elkarte. · **Orduetgia:** Astelehenetik-Ostiralerara. · **Sarrera ordua:** 9:00-10:00 **Irteera ordua:** 13:00 · **Umeen adina:** HH3-12 urte. · **Prezioa:** Ume kopuruaren arabera zehaztuko da.



IKASTAROAK

SAGASTIEN UDAKO KIMAKETA, GAITZAK ETA IZURRITEAK
Hizlaria: Aitor Etxeandia · **Eguna:** Ekainak 3 larunbata · **Lekua:** Potxoenean.
Ordua: 09:00-13:00 · **Prezioa:** 15 euro · **Izen ematea:** Alkartasuna Kooperatiban izena eman behar da: 943 361114 edo alkartasuna@usurbil.com
Antolatzaileak: Noaua! kultur elkarte, Usurbilgo Udala, Usurbilgo Sagardo egunaren Lagunak, Usurbilgo Gaztetxea, Alkartasuna Nekazal Kooperatiba.